

Hiletarik ez

TXILLARDEGI



JOAN gintzekeen bidetik eta zizuan ez goaz. Gure herri hau 'goitik' freinatua eta geldotua dagoela errepikatuz beharrik ez dago. Abertzaleok ongi dakigu. Eta gure indarrak asko eta askotan gaitzen ditugula alferrik.

Orain, halere, Aberri-Eguna bezpera hauetan, hileta jotzeko arrazoinak ez dagoela aldarrikatu behar da ozenki. Eta orain dela urte batzuk beste honenbeste esaterik ez geneukala.

Iparraldeko anaien nazio-projektuarekin bat egiten ez zituela esan ohi genuen saminez. Gaur egun hori ez da egia. Mauleko ospaketak igande honetantxe nabarmenki agertuko duenez, Iparraldean ere abertzaletasuna itsatsi egin da.

Euskararen aldeko mोगimendua abiatzen ez zela errepikatuz ohi genuen urte luzetan. Eta oraindik ere oso urrun gaudela esan behar da. Aurtengo neurketek erakutsi dutenez, ordea, euskararen erabilpena gora hasi da.

'Nafarroan min dut' aitortu ohi genuen. Sasi-nafarkeria anti-euskaldunak, navarrismo fatxa eta espainolista. Del Burgo eta Aizpuren kutsuok, hor zirauren tinko. Alifren fenomenoak, bere hastapen hauetan ere, 'Navarra anti-vasca y española' hura zaharkatu dela erakusten du. Geroak erranen. Baina zerbaiz aldatu da Nafarroan.

'Langilerian min dut' ere esan genezakeen: PNaren eskuindarkeria nabarmena ezaguturik, abertzaletasuna maingu zegoen ezkerrean. Proiektu sozialisten porrota gertatzen, are zalago zirudien langileria abertzaletasunerantz hurbiltzea. Hots, horixe gertatu da. Sindikalismo abertzaletasunari da garbiki indartzen; eta alderdi politiko abertzaleek lortu ez dutena lortzen. Lau fenomeno horiek besterik ez bagenu ere, abertzaletasunari buruz baikor agertzeko oinarri sendoa izango genuke. Dударik gabe esan dezakegu, eta esan behar dugu, gure herria hasia dela esnatzen, eta helburu nagusien inguruan indartzen. Aberri-Eguna bezpera honetan, hileta joko? Zergatik ba?

Urtean behin, bat

RAMON LABAIEN



PAZKO igandea gaur, egun nagusia kristau geroantzat, ikusiz ez bazen Pizkundetik orain 2000 urte ez dela lekuri federarentzat... Pizkunde eguna ba, eta baita ere Aberri Eguna, Sabinoren ametz batean sortua. Prezesu berezi bateri bame begirada emateko eguna... Herri hau ari ote den berpizten eta esnatzen, pausoz pauso eta urtetik urtera edota horrelakorik ez bada, ari ote geran ilunaren zuloan desagertzen. Abertzale bakoitzarentzat erreflexio eguna. Herri bat finkatu eta sendotzen duten komposante horietan aurrera goaz edo ez? Hizkuntzan, etikan, teknologian, txukuntasunean, bakoitzak besteari zor dion errespetuan... Gu, Frantziako gatazkez eta Espainiako desastreez hain inguruatua gaudenok, eusten al diogu, zutik, eskuak garbi, Sabinoren ametza errealtate bihurtzeko, beharrezko diren?

Badirudi, ordea, horrelako galderak ahan-tziak gelditzen direla opor huts bihurtu den Pazko eta Aberri Egun hontan. Opor egun bat opor garai batean, eta hortik kanpo, gauza gutxi. Ez da egun berezi baten zentzurik ikusten, ez gure herria osatzen duen gehiengoan, ez ta ere, Eusko Instituzioetan. Baliteke abertzale direnen artean oroitzen bat sortzea han eta hemen. Baliteke ere, eusko nazio kontzeptuaren etsaiek, Aberri Egunaren simbolismoak duen indarra min-bizi gisa nabaritzea... Hain ozpinduak dabilzizkigun PSOEko mutikoak edo Ordoñez zenaren tankera okerrenak ximutuz hasia dugun Mayor Oreja jauna... Dударik gabe, zerbaiz positibo azaltzen duten bakarrak, alderdi abertzale hunen edo haren alderdiki-deak dira. Kezka batekin, ez ote ari geran Aberri Eguna, alderdi egun bihurtzen... Hain ugariak artzainak, hain ekaxak ardiak eta zein sakabanatua ardaldea... Noiz izanen gera gauza urtean behin, bat egiteko?

● ARGIA

Udaletxeak, eskean egitera

1984. eta 90. urte bitartean, Eusko Jauriaritzak 3,56an biderkatu ditu bere fondoak. Bizkaitik 47.460 milioi jaso-tzetik 168.816 milioi jasotzera pasatuz. Diputazioak, epe berean, gestio propioaren diru kopurua 3,55ean biderkatu zuen, 30.507 milioititik 108.263 milioira pasatuz. Udalak, aldiz, epe berean 1,76ko koefizienteari dago-kina handitu ziren, Diputa-ziotik jasotako 19.110 milioi-



...eta hirugarren legeintzaldian berpiztu egin zen. CHUMY CHUMÉZ / DIARIO 16

tik 33.648 milioira igaroz. Udalen kalterako, datu ho-
risk zentralizazioaren handi-
tzea erakusten dute. Jauriari-

tzak eta Diputazioak lau aldiz biderkatzen dituzte euren ba-liabideak, udalteekek apenas biderkatzen dituzten artean.

Administrazioen arteko banaketa aztertuz gero, 'le-hoiaren zatia' Eusko Jauriari-tzak poltsikoratu duela ohar-tuko gara. Diputazioak eta udalak askoz gutxiago hazi ziren, % 77 eta % 27 hain zuzen ere.

Ezin da onartu Bilboko Udalak, kasu, 95ean apenas 36.000 milioiko aurrekontua izatea eta Eusko Jauriaritzak 600.000 milioikoa. Ez al da hau zentralismo argi eta gar-bia?

JOSE MARIA GORORDO

ZUZENDARIARI

Agindu faltsuak

1994-1995 ikasturtean Ikasketa Plan berri bat bideratuko zela eta haren aurrean ez genuela aukerarik izango esan ziguten lehenengo: moldatu beharko genuen ezinbestez. Azalpena laburra bezain iluna izan zen: metodologia, baliabideak, espazioak, kredituak... baina konforme gelditu ginen. Liluraturik eta gutzit ase sentitu ginen plan berriak ekarriko zizkigun espesialitateak adierazi zituztenean: psikologia, logopedia... eta jendea haie-tan murgiltzeko irrikian utzi zuten beste asko.

Eta halaxe erabaki genuen lehen ziklo-ko bigarren ikasturteari ekitea, bi lauhilabete-ko horiek gogorrik izango zirela bagenekien arren: 19 asignatura! Eta nola garestitu zen matrituluen kostua, asigna-tura haiek ordaintzeagatik! Baina kon-forme geunden eta tira!

Gure arteko gehienok ikasturtea eroso igarotzea espero genuen; hura gaitiditu eta, datorren urtean, aukeraturiko espe-zialitatean hasi.

Baina ikasturte bukaeraren atean gauden honetan, ez dugu datorren urtean abiaraziko zituzten espesialitate horien berririk jaso.

«Baina zer antolamendu arraito da hau?», hasi dira ikaskideak. «Zer egingo dugu hemendik aurrera?», «beste nonbait hasi beharko dugu begiratzen: Deustua,

Iruñea, Salamanca...». Ekintzetara pasa nahi dute beste batzuek: «ikusit egin behar gaituzte, ekintzetara pasa gaituzten, ez dezakegu egin nahi duguten gutzia onartu. Ergeltzat hartu gaituzte lehen egune-tik, txanda aurreko abisurik gabe kendu zituztenean. Borroka egin behar dugu agindu zituztenaren alde!».

Iritzi guztiak ez datoz bat, baina hasie-ra baizik ez da hau. Agindu zigutena ematea nahi dugu, besterik ez. Ez diezagu-gutela agindu faltsurik eman, ez daitezela oraingoan hizka-mizka hasi: onartu egin zuten egin batez ikasketa plan aldatzea, gure fakultatea hankaz gora jarriko zuten aldaketei ekitea, eta orain buru eman be-harko diote emandako hitzari.

Bilera asko egin ditugu Fakultateko Dekanotzan, gure kezak eta kexuak azaldu dizkiegu arduradunei, baina ez digute erantzun zehatzik ematen eta gero eta ilunagoa da aurrean dugun ikuspegia. Ez gara, ordea, besoak bildurik geratuko, ez horixe, eta borrokari ekingo diogu agindu zituzten horren alde.

Ekarri egin digute plan berria, bai, baina hartan zehaztu zen gutzia nahi du-gu, eta batez ere harekin batera agindu zituztuen espesialitateak.

Zeren, bestela, nora joango ote gara datorren urtean?

HEZKUNTZA ZIENTZIJETARAKO FAKULTATEKO IKASLEEN TALDEA
Donostia

Hezkuntza Sailean gaztelera z

Euskarari buruzko lan bat egiten ari gara eta, gaurkora Hezkuntza Saillak Donostiako Lasala enparantzan duen egoitzara joatea egokitu zaigu. Informa-zio bulegoan euskaraz hitz egiten hasi garenean, hona hemen gure harridura: «Perdonar pero no os entiendo!». Adie-razi behar genuena gaztelera z esan diogu. Estatistika Saileara zuzentzeko esan digu. Hara hurbildu garenean, 6 pisura hain zuzen ere, gaztelera hitz egiteko eskatu digute berriro.

Guk euskaraz zekien norbaitekin hitz egin nahi genuela esan digu. Minutu pare bat pasa ondoren euskaldun bat hur-bildu zaigu. Gure eskaera azaldu diogu-nean berari zegoekin saila ez zela eta itxaroteko esan digu. Hara non, beste tipa bat agertu da gaztelera hitz egiten eta euskaraz hitz egin nahi genuela esan diogu. Honek lotsagabeki gaztelera hitz egitera behartu gaitu nahi genuena lortu nahi bagenuen.

Nor ausartzen da esaten, gaur euskaldunak diskriminaturik ez gaudela! Hau lotsagarria, Hezkuntza Sailean eus-kara ez dakiten pertsonak egotea eta gai-nera, hau gutxi balitz, euskararen aurka egotea!

JOSE KRUTZ ELOSEGI

GAIA JARRITA



Aberri Eguna

Aberri Egunak ospakizuna besterik ez du agintzen, bere burua abertzaletzat duenarentzat egin zen. Festa giroak ez du ordea sorbalda gaina arintzen, nahiz eta gogo bereziz jardun ikurrin danak astintzen, egun bateko aireak ez du urte gutziko hautsa kentzen.

JOSE LUIS URDANGARIN

Egunkaria

Batzorde Parkeidea: 72564 E / Lege Gordailu: SS 800/90



ODJK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administracoe Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: ENAKI URUA

Zuzendaria: MARTXEL OTAMENDI

Geroentes: FERMIN LAZKANO

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoltze nagusia: Gudarien etorbidea, z/g / 20140 Andoain
30 02 22 / Erredakzio faxa: 30 02 55 / Publikatze faxa: 30 07 07

Arabe: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / Iruñea (dorra) / 31011 Iruñea
17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo
410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panneau 14, 1 / 503 Posta
kutsutia, / 64100 Baiona / # 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11